



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
30. alea | 2008ko Maiatza/B | nazioartea@euskaleskola.org |
<http://www.euskaleskola.org/>

ALE BEREZIA: NAKBA (Hondamendia)

NAKBA: HONDAMENDIA

Maiatzaren 15a egun tristea da Palestinarentzat. 1948ko Maiatzaren 15 batean, orain dela 60 urte, 800.000 palestinarrek euren etxeak utzi behar izan zituzten Israelen sorrera zela eta. Horregatik egun horri Nakba izena ematen diote, hau da, Hondamendia. Garbiketa etniko horren ondorioak gaur egun ere darraite: lau milioi palestinar errefuxiatuak dira, bai errefuxiatu-eremuetan bai beste herrialde batzuetan dauden eremuetan.

60 urte igaro dira eta oraindik ere palestinarrek euren oinarrizko eskubideak urratuak ikusten dituzte egunero. Horren adibideak asko dira, eta horietako askok hezkuntzari eragiten diote. Horiek dira bereziki hemen jorratuko ditugunak, Herriek Bere Eskolaren ale berezi honetan. Baina badira bestelako egoerak ere: Gaza guztiz isolatuta dago, laguntza minimorik ere jasotzen ez duelarik. Palestinarrak ez dira euren luraren jabe, baina ura ezta airea ere ezin dituzte kudeatu. Palestinar guztiak kartzela handi batean bizi dira. Horretaz gain Zisjordaniak lurak lapurtzen dizkiete, Apartheid harresi erraldoi batekin hiriak erdibitzen dituzte eta familiak desegin. 11.000 preso politiko dituzte expetxe ezberdinetan sakabanatuta. Palestina egun batean zenaren %80a gaur egun Israelen esku dago. 60 urte eta gero Nakba gogoratzeko eguna dugu. EHBETik egingo diren ekimen ezberdinetan parte-hartzera deitzen zaituztegu.

Informazio gehiagorako:

http://www.askapena.org/berriak/men/karpeta_eu/497/ind_aska

<http://www.alnakba.org/>

<http://es.wikipedia.org/wiki/Nakba>, <http://en.wikipedia.org/wiki/Nakba>, <http://fr.wikipedia.org/wiki/Nakba>

HEZKUNTZAK ERE HONDAMENDIA JASATEN DUENEAN



PHOTO: SAMAL AROURI

Palestina herrialde arabiarren artean kultuenerariko bat da. 18 eta 25 urte arteko palestinarren artean %1,8a baino ez da analfabetoa. 25 urtetik gorakoen artean %10ak ez daki irakurtzen edo idazten. Inguruko herriekin alderatzen badugu kopuru txikia da. Herrialde arabiarretan gizonen analfabetismoa %30a da eta emakumeena %50a. Palestinako herritarren herena ikasleak dira, eta populazioaren erdiak 18 urte baino gutxiago ditu. Beraz hezkuntzarako eskubideaz hitz egitea garrantzitsua da.

Palestinarrek badakite hezkuntzaren bitartez baino ezingo dutela lortu jendarte hobe bat. Israeliek ere badaki, eta horregatik hezkuntzarako eskubidea ere urratzen du behin eta berriro. Lehenengo intifada izan zenean, 1987tik 1992ra, heztea legez kanpo utzi zuten, eskola eta unibertsitateak itxiz. Etxe-eskolak ematen zituzten hainbat ikasle eta irakasle atxilotu zituzten eta ikastetxeetako sarrerak soldatu zituzten. Eta egoerak horrela darrai. Martxoaren 6-13 astean Israeliek 22 ikasle erail zituen.

OKUPAZIOA EDUKIETAN

Euskal Curriculuma eraikitzeko arrazoietakoa bat, baina ez bakarra, Frantziar eta Espainiar estatuek eragiten duten edukien okupazioa da. Israelek ere egiten du Palestinarekin, eurek kudeatutako lurralde okupatueta dauden eskola arabiarretan eduki mingarriak sartzen.

Ikasturte honetan Israelgo Hezkuntza Ministerioak Unitate Didaktiko berezi bat prestatu du herrialdearen 60. urteurrena ospatu asmoz. Programa honen helburuak 4 dira: Israelen sorreraren 60. urteurrena gogoratu eta ospatzea, estatu horrekiko harrotasuna, maitasuna eta pertenezia sentimendua sortzea, judu, musulman, kristau eta drusoek Israelen izaera judu-demokratikoa ikustaraztea eta haur eta gaztetxoak gizartean aktibo izan daitezen indartzea, estatuaren mantenuan duten garrantzia ikustaraziz.

Hau egiteko 5 poster ezberdin sortu dituzte, haur eskoletatik bigarren hezkuntzara eskola guztietan derrigorrez ikasi beharko direnak, baita Irakasle Eskoletan ere. Poster horietan Israelen zergatia, judutarren “itzulera” masiboa, Defentsa eta Segurtasuna, Hezkuntza eta Kultura aztertzen dira, beti ere Israel zibilizazioaren oinarria dela aldarrikatuz. Gertakarien kontakizun osoa ikuspegi sionistatik egiten dute, Palestinarentzat Nakba dena, exiliatuaren itzulera eguna izendatuz, eta dauden beste erlijioei euren iritzia plazaratzea ukatuz.


1953an Israelen bizi ziren arabiarrek euren hizkuntza eta kulturaren hezteko eskubidea zutela onartu zen, nolabaiteko bi Hezkuntza Sistema berezitu eraikiz estatu berdinarekin. Hala ere *de facto* eskola arabiarretan eduki sionistak ikasi behar dira, eta ez alderantziz, eskola judutarretan eduki arabiarrenak. Orain programa honekin eskubide hori ere urratzen dute, guztiei programa inposatu bera ezarriz.

Informazio gehiagorako:

<http://www.adalah.org/eng/features/NU%2060th%20anniversary.pdf> (ingeleraz)

OKUPAZIOAK ESKOLAK IXTEN DITUENEAN

Israelen okupazioak ez du ezer errespetatzen. Euren demokrazia eta zibilizazio itxuraren azpian palestinarren eskubiderik oinarritzkoenak ukatzen dituzte. Medioetan askotan entzuten da ura, janaria eta petrolioak ukatzen zaiela. Hezkuntza ukatzen den oinarritzko baliabideetako bat da.



Lehenengo intifada izan zenean Hezkuntza ilegalizatu zuten, eta 5 urtez haur eskolak, eskolak eta unibertsitateak militarki itxi zituzten. Milaka izan ziren 5 urte horietan hezkuntza eskubiderik izan ez zuten palestinarrenak. 2000ko irailaz gero hamarnaka eskola itxi dituzte eta bertan militarren kuartelak eraiki. Baina derrigorrez itxirik ez dauden beste askok ere euren atak itxi behar izan dituzte, kera-dei edo kontrolak direla eta inork ezin zuelako bertara joan. 2003an Hebrongo Unibertsitatea eta Palestinako Unibertsitate Politeknikoaren itxierak 6.000 ikasle utzi zituzten eskolak jasotzeko eskubiderik gabe. Honen aurrean internet bidezko hezkuntza bezalako ideiak garatu dituzte. Kera-deiaren aurka ere neurriak hartu dituzte, herri osoa aldi berean doa eskolara umeak bertara lagunduz. 2006ko ekainan Gazan Israelek 12 eskola eraso zituen, eta beste 18tan sartu eta klaseak eten zituzten. Hebron hiriko alde zaharrean ere kera-deia ezarri zuten, ikasleak 2 eskoletara hel zitezten eragotziz. Maiatzaren 23an Birzeit Unibertsitateara sartu eta ikasleak bizkarrean tirokatu zituzten. Hauek egunero pairatzen den egoera baten adibideak baino ez dira.

Informazio gehiagorako:

<http://right2edu.birzeit.edu/news/catindex30> (ingeleraz)

<http://right2edu.birzeit.edu/news/article495> (ingeleraz)

http://www.gisha.org/UserFiles/File/publications_english/Publications%20and%20Reports_English/Appendix%20to%20Press%20Release%2022.10.07_eng.pdf

OKUPAZIOAK IKASLEAK ATXILOTZEN DITUENEAN

Milaka ikasle dituen herri batean eta hezkuntza eskubidea ukatua dagoen leku batean ikasle mugimendu bat egotea gauza arrunta da. Ikasleek okupazioaren aurka eta Palestinaren alde egiten duten lana ezaguna da, gazteak baitira. Israelek eskolak ixten dituenean ikasle asko borrokara eramaten ditu eta sionistek ikasleen aurka ekiten dute.



Ezinezkoa litzateke tarte honetan ikasleen aurka egiten diren ekimen guztiak zerrendatzea. Birzeit Unibertsitatea, Palestinan dagoen bigarren unibertsitaterik handiena baina mugimendu handiena duena da gertakari guzti hauen adibide ona. Hori dela eta milaka ikasleren aurka oldartzeaz gain Ikasle Kontseiluak behin eta berriz atxilotzen dituzte, erakunde ilegal bat direla esanez. Azkeneko zikloa 2007ko azaroan hasi zen. Azaroaren 26an Israelgo militarrek Ikasle Kontseiluko presidentea atxilotu zuten eta astebete eduki zuten inkomunikaturik. Abenduaren 3an Ikasle Kontseiluko burua erakunde ilegal bateko kidea zela esan zuten.

Abenduaren 8an bertan epaitu eta urtebeteko kartzela zigorra ezarri zioten. Helburu bakarra ikasleek politikan parte har zezaten eragoztekoa zen, demokratikoki aukeratu zuten ikasle baten aurka neurriak hartuz.

Baina historia honek ez du amaierarik, beste norbaitek egingo baitu lan hori. 2008ko urtarriletik martxora bitarte 8 ikasle eta AZP bat atxilotu dituzte unibertsitatean, alderdi politiko bateko kide izatearen akusazio ez formalarekin. Israelen politika berriaren baitan edozein pertsona atxilotu dezakete modu prebentibo batean akusazio formalik egin gabe. Birzeit Unibertsitateak momentu honetan 15 atxilotu administratibo eta 95 preso politiko ditu. Ikasleen %30ak noizbait galdeketaren bat jasan izan du.

Informazio gehiagorako:

<http://right2edu.birzeit.edu/news/catindex31>

<http://www.youtube.com/watch?v=0Vu7WjxPAyY> (Bideoa)

<http://www.youtube.com/watch?v=eC15dVhYg3Y> (Hauteskundeen bideoa)

<http://right2edu.birzeit.edu/news/article495> egoeraren datuak.

OKUPAZIOAK HARRESI BAT ERAIKITZEN DUENEAN

Israelek Palestinaren lurralde okupatzeaz gain eurekiko desberdintze fisikoa ere lortu nahi dute. Horretarako 704 kilometroko luzera izango duen harresi bat eraikitzen dabilta, horietatik %80a Zisjordaniaren lurren barruan, kolonoek eraiki dituzten herriak ere “babestuz”. Harresi horrek herriak zatikatzen ditu eta ospitaletara edo eskoletara joateko bideak oztokatzen ditu. Zeintzuk dira zatiketa horrek hezkuntza dituen eraginak?

Harresiak Jerusalem bezalako hirietan eragin handia du. Belemeko unibertsitateko ikasleen %17,5a eta Berzeiteko %25a Jerusalem Ekialdean bizi dira eta, beraz, egunero igaro behar dituzte harresietako kontrolak eskolara joan ahal izateko.

Harresiaren beste aldean eskolara joaten diren haurrek egunero minutu batzuetatik hainbat ordotara irauten duten kontrolak pairatu behar dituzte. Garraio publikoek dituzten kontrol neurriak direla eta ezinezkoa da gehienetan eskoletara garaiz heltzea. Ikasle batzuek lehen metro batzuk egiten zituzten eskolara eta gaur egun 20 kilometro egin behar diutuzte ate bat aurkitu arte.

Ramallahetik Jerusalemara joateko ikasleek gutxienez 3 kontrol igaro behar dituzte egunero, eta orduak behar dituzte joateko. Gainera harresiaren beste aldean lan egiten duten 375 irakasleri muga igarotzeko baimena ukatu diete.

Gerta liteke erabaki militar bat dela eta muga guztiak ixtea... eta egun horretan ez da, beraz, klaserik egongo. Datu gordin hauek erakusten dutenez egoera tamalgarrria da egunerokotasunean. Harresiak “segurtasuna” handitzen ote duen galdegin daiteke, baina ziur areagotzen direna palestinarren bizi-baldintza krudelak direla.



Informazio gehiagorako:

<http://electronicintifada.net/v2/article4283.shtml> (inglereaz)

http://www.mundoarabe.org/el_muro_del_apartheid_israel%C3%AD.htm (Harresiaren inguruan, gazteleraz)

ZER EGIN DEZAKEGU EUSKAL HERRIAN?

Palestinatik urrun bizi gara, bai, baina Euskal Herrian hainbat gauza egin ditzakegu egoera alda dadin, baita hezkuntza mundutik ere. Palestinako 170 jendarte-eragilek Israelen aurka boikota abiatzeko eskatu dute, mundu mailan egoera honen aurka dagoen ororentzat. Boikota ez da bakarrik Israeldar produktuak ez erostea (orokorrean kode-barraren hasieran 7 29 duten produktu guztiak, Nanas, Revlon, Victoria's Secret, Marks&Spencer, Gap, Kmart, C&A, Nike, Hugo Boss, Polo Ralph Lauren edo Epilady bezala, edo Imaginarium jostailu dendak), baizik eta Israeli esparru guztietan boikota egitea.

Boikotaren alderdietako bat intelektual-kultural-akademikoa litzateke. Israelgo unibertsitateekin akordiorik ez egitea edo euren kultura ekoizpenak ez erosteak garrantzi handia dauka. Azken finean sektore akademiko-intelektualak jasan dezakeen boikota Israelen aurpegi garbiketarak ere boikota jasotzea litzateke. Gure eskola eta unibertsitatetan lan handia egin dezakegu horrelako akordiorik egon ez daitezen, ezta ikerkuntza bateraturik ere.

Baina horretaz gain Askapenak eta Kamaradakek deitu dituzten deialdiekin ere bat egin daiteke. Hauek dira Nakba oroitzeko deitu diren hainbat elkarretaratze eta hitzaldi:

Bizkaian:

- Sodupe: Galarraga kalean, 19:30tan
- Bilbo: Arriagan 20:00tan
- Algorta: Telletxe plazan 20:00tan
- Basauri: 20:30tan
- Otxandio: Plazan 20tan
- Elorrio: Plazan 19tan
- Bermeo: Goiko plazan 20tan

Araba:

- Gasteiz: 19tan
- Mendizabala: Arabatakadako kontzertuan.

Nafarroa:

- Iruñea: Mercaderes plazan, 19:30tan
- Tafalla: 20tan Nafarroa plazan.
- Altsasu: 20tan plazan
- Gares: 20tan plazan.

Gipuzkoa:

Elkarretaratzeak Donostia, Orereta eta Tolosan.
Azpeitian: 19:30 plazan.

Kamaradakek antolatutako bestelako ekimenak:

- Galdakaoko institutuan informazio gunea jarriko da.
- Maiatzaren 9an 21:00tan Ondarruko gaztetxean eztabaida eta panel erakusketa.
- Maiatzaren 13an, 16:30tan Gasteizko campuseko Filologian hitzaldia fakultate sarreran.
- Maiatzaren 15ean, 19tan, Irungo Lakaxita gaztetxean hitzaldi-etzabaida eta bideo emanaldia.
- Maiatzaren 18an Lekeitoko zaharren egoitzan hitzaldia.
- Maiatzaren 21ean 11:30tan Ibaetako campuseko FIHEZIKo 06 gelan hitzaldia.
- Maiatzaren 21ean 20:00tan Bilboko San Inazio auzoan mahai ingurua eta argazki erakusketa Kabia tabernan.
- Maiatzak 22, Santutxun hitzaldia.
- Maiatzaren 22an hitzaldia Leioako campusean.

Askapenatik gogorarazten duten bezala, Palestinaren okupazioaren aurka, preso politikoen alde, eskubide zibil eta politikoen alde, hezkuntza eskubidaren alde, inperialismoaren aurka borrokatzea Euskal Herriaren herri eskubideen alde borrokatzea ere bada. Palestinaren alde borrokatzea elkartasun haziak landatzea da, laster olibondoak eta haritzak elkar loratzeko.

Informazio gehiagorako:

<http://www.askapena.org/herriak/munduarabea/palestina>

<http://www.kamaradak.org>

<http://pacbi.org/> (Boikot kultural-akademikorako deia egiten duen webgunea)

**PALESTINAREN AURKAKO ZAPALKUNTZA
SIONISTAK DIRAUIEN BITARTEAN**

1948-V-15 Nakba

-1948an 800.000 errefuxiatu, milaka hildako, eta lur askoren lapurreta eragin zituen estatu isrraeldararen sorrerak. Horregatik palestinarrek egun horri Nakba deitzen diote: hondamendia.



2008-V-15

-2008an, 60 urte joan eta gero, 4.000.000 errefuxiatu palestinar daude, 11.000 preso politiko, Apartheid harresia, ur eta argi mozketak, olibondoaren eruzketak, gero eta lur gehiagoren lapurreta... horregatik:



**ISRAEL! EZ, ESKERRIK ASKO
BOIKOT**
www.israelboikot.org

Nakba, Maiatzak 15

Euskal Herriak ez du onartzen presentzia Israeldarrik

Nakba, Maiatzak 15

ISRAELI BOIKOT EUSKAL EKIMENA